

Goi

Goierritarra aldizkaria

413 zenbakia 2012ko urtarrikak 13



GET
GOIERRI

JON ETA GORKA
IZAGIRRE



Nortasun **marka**

DISEINUA, SORKUNTZA GRAFIKOA ETA KOMUNIKAZIOA

www.faktore.net

Barandiaran

materialak



Eraikuntzarako materialen biltegi berria: sukaldeak, beheko suak, berogailuak, pellet-a

Zatoz ezagutzera! 943 18 78 52 eziolatza B-1 idiazabal

www.barandiaranzeramikak.com/mat

ADY NUTRIMENTOS



FORMACIÓN

www.dosformacion.com
Nafarroa etorbidea, 1 - BEASAIN
943 88 03 46 - 656 70 86 31

enpresen
kudeaketa

Lanbide
ikastaroak

Kalitatea

Informatika

Hobetuz
ikastaroak

Banakako
arreta

giza
baliabideak

H
i
z
k
u
t
z
a
k

%100 diruz
lagundutako
ikastaroak



Ekaitz Goikoetxea

Eta 2011ko Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako txapel-dun... Aitor Sarriegi! Ta guk txalo jo genionan Aitorri, txalo lñakiri, txalo, pozik, pozez. Halaxe bukau geniñan, bai, Igartza Jauregiko eszenatoki paregabean poema errezitaldi ezin xamurragoa gozauz hasi-tako asteburue.

2011-XII-16 Beasaingo Igartza Jauregiko atea Aitor Furun-darenan soñu ta lñaki Tellerian perkusiokin gurutzau, ta Tere

Irastorza ta Itziar Gomezen hitzekin ein geniñan sillataño-ko bidea. Orduete, orduete itxasargi ta kresal arten, itxasoa barnealdeko zoko ezkutunak zipriztintzeko gai baiten ola-tuk Karmele Igartuak altxatuk dienen. Ordun ez geneki-ñan, oaiñ bazekiñau. Ta guk txalo jo genienan ikasgaien-gatik, txalo, pozik baño penaz, entzule asko gendelako baño berrogei urte baño gutxigokoik apenas.

2011-XII-17 17:00. Beasaingo plazapea. Mahaiek. Mahaiek, ta ingurun gidari lanak eingo zittun euskalteiko irakasle, Goenkaleko aktore ta Goierriko euskaldun zahar ta berri bana. Mintzodromoa. Euskaldun zaharren arrimon, ahoz, hitzez, euskeratik ta euskeraz euskaldun berrik tre-

Txaloka zenbau nizkiñan asteburuko

bizipoz ta bizipenak.

batzeko ekimena. Txalogarrie. Ta txalogarrie dalako txalo jo genionan, pozik baño penaz, partaide mordoxka bat gen-delako baño euskalteiko irakasle ta Goenkaleko aktore ez giñen berrogei urte baño gutxigokoik apenas. **19:30.** Ordiziko Barrena. Goierriko Kasta. Berroita hamar minu-tuko poema errizataldie. Oholtzan beatzi, entzuten hiru, kas-takide baten emaztea ta semea, ta gue bitartez inguatuko aixkidea. Eskerrik asko ta ondo bizi! Ta gu triste, emanal-dia etorri baekon penaz; txalo jotzeko pozik... apenas.

2011-XII-18 12:30. Beasaingo Pergolatako frontoi txikie. Heriotza zuriz jantzita liburun aurkezpena. Migel Anjel Mintegi ta hi, hi ta Migel Anjel Mintegi. Ta zuen solasaldie aitzen hire etxeko hiruek, soñu teknikarie ta... berrogei urte baño gutxigoko inor ez ta gehiokoik apenas. **12:45.** Ta gendenagatik pozez baño falta zienangatik penaz, txaloka zenbau nizkiñan asteburuko bizipoz ta bizipenak.

A ze hari pilea zintzilik... jostun itxurea hartzen al diak? Zupa ta zupa nahiko lan izan diat beti hari punttea txulon sartzen. Partxea jarri? Batzutan beharrezkoa dek belaunburuk bistan uztea urrauta dauzkeula kontuatzeko.

Bizipozak ta bizipenak txalotzeko penak ta pozak bizi in behar dittuk ta hortako ezin-bestekoa dek hurbiltzea ta sen-titzea, eoten jakitea; eon eho-tzeko, itteko, alegie, eotu beha-rrik ez zeok eta! Parte hartu gutxi ta parte eman asko itten diau. Bai, parte eman, kaleko hizkeran kritikau.


Poesie... buf poesie, o igande goize... buf igande goize, o nik ez diat euskeran alde in nahi, nik euskeraz in nahi diat. To! Neonek entzuna mintzodromoz hizketan ai ginela. Parte ez hartzeko, alde in nahi ez ta alde itteko, aitzaki politte! Ta ni euskeraz aittu giñelakon! Ni re eneok eun bakar batea mugatzen dien ospakizunen zale, baño ezau-tzen dizkiat herrin astero-astero alkartzen dien euskaldun zahar ta euskaldun berrik ta itten ai dien lasterketak (dromo) aurea luze jarraituko badi, gañeakoi txalo jo, bultza in ta parte hartzea zeokiguk. Itten dan hura hobeto

Parte hartu gutxi ta parte eman

asko itten diau.

in daikela? Seguro. Baño hoi re ez dadila ezer ez itteko o daona zapuzteko aitzaki bihurtu. Energi gehitxo gastatzen diau parte ematen, ta parteka parteka emateko indar guz-tik gastatzen zaizkiguk, ta parteka parteka osotasunen eraikitzea zer dan ahazten zaiguk.

Ta eraiki... zutabeka-zutabeka itten dek, ezta? Ta zuta-bek dittuk herritarrak, ta euskera elkartek, ta kultur elkar-tek, ta udal ordezkari, ta... Kastakon emanaldin hiru entzule esan dek? Ta emaztea ez zan euskera elkartekoa ta semea ez zan kultur elkartekoa ta laune ez zan udal orde-zkari. Ez alde ta ez in, ahal dala alde itten deula! Hartzen donak eman in behar dola ta hoixe, Ekaitz, parte hartu ta geo parte pixkat e eman in nahi non. Ta esan, gozau in nula; ia kultura ittea sakrifizio huts ez, ta gozamen betea dala sinisten hasten gean! Ta hartu ta eman, ematen hasi-ta, nik e eman in nahi, Aitor ta lñakiri, zorionak!



Irati Goikoetxea

GOIERRITARRA diruz laguntzen duten erakundeak:

Altzaga, Arama,
Itsasondo eta
Ligorretakoko udalak



Goi
Goierritarra aldizkaria

Argitaratzailea:
Goierriko Hedabideak S.L:
Urbialde plaza, 7 - behea
BEASAIN

Posta elektronikoa:
goierritarra@goierrikohitza.info
Telefonoak:
Erredakzioa: 943 16 00 56
Publizitatea: 647 319 775
Harpidetzak: 902 820 201

Zuzendaria: Loinaz Agirre
Maketazioa: Mikel Albisu

Inprimaketa: Gertu
ISSN: 1132-0907
Lege gordailua: SS-926/89

GOIERRITARRAK ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística

Zer aldatu da? Nora begira gaude gurasook?
Gazte batzuk, zergatik besteren gauzak txikitzeko
jarrera, niretzat ez bada inorentzat ez?



Iñaki Murua

Zer dela eta hau?

Ez du zerikusirik Gabonekin ezta gau onekin ere. Krisiak eragina izan dezake baina, zer dela eta hainbeste txikio festa egun alai eta umoretsu baten bukaeran? Gazte eta ez-konformista izateak ez al du beste burubide bat eskatzen? Noski! Orduan, zein da/dira burugabekeria hauek egiten ari dena/ direnak? Zer dela eta egin behar ditu inork horrelakoak? Ez da edozein herritan gertatzen, ez, bereziki Ordizian bistartzen dira jarrera honen emaitzak: abenduaren 25ean, goizalde-
ra, estolderiako burdinazko tapa hartu eta hiru erakusleiho apurtu edo nahi izan behintzat. Hainbat autori retro-bisoreak puskatu, baina ez bat edo biri, ez, kale osoa oinez pasa ahala, lur-estali ispilu apurtuz. Zerk eragiten du herritarrek egunero-ko zereginetan behar dituzten bitartekoak horrela desegin beharra? Gazteak omen dira, gaztetxoak askotan eta horrenbesteko herria? Zer ez ote dute izango bizitzak egurra ematen dienean eta aldapagora benetan hasten zaienean?

Beren buruarekiko kontrolik ezaren eragina omen; nonbait droga bereziren bat edo batzuen kontsumo eta nahastea tarte-ko. Baina gurasoen kontrolak ere huts egiten ote duen kezka zabaltzen ari delakoan nago. Diotenez, bailarako gaztetxe batean, gertakari hauetako baten inguruan batzarra egin eta, egileak, denen aurrean aitortu omen zuen bera izan zela. Baita, zegokionari, eragindako kaltea diruz ordaindu ere. Nik jakin dudanez, gertaera hau herrian nahikoa zabaldu da baina, gurasoek ez diote ezer adierazi kaltetuari, nahiz eta ia egunero topo egin kaleren batean. Ez dute tutik ere jakingo, ala errazagoa da beste aldera begiratzea? Batzuetan etxekoak izaten dira jakiten azkenak, auskalo! Ez dute, benetako lagunik, jakinaren gainean jarriko dituenik ere ...


Horrela ez goaz urrutil! Gu, goierritar zintzo-zintzoak gara, ez guk ez gure seme alabek ez dugu sekula gaizkirik egin, nola bada! Horretan ari direnak kanpotarrak dira! Seguru? Ez daukagu zaila jakiten, galdetu Ordiziako edo Beasaingo kale garbitzaileei, goizeko seietan bazterrak garbitzen ari direnean, ea

nongo gazteek banatzen dieten ostikoka bildu berri duten zaborra. Edo nork bota dien maldan behera edo hankaz gora zaborren gurditxo eta tresnak hegan?. Nortzuk ziren, ez dute jakingo baina nortzuk ez ziren bai! Eta zertarako gai diren ere, zertxobait jakingo dute, beren burua babesteko tramankuluak eskura edukitzen hasi omen dira behintzat, goizeko errelebo hori datorkienean ...

Orain badauzkagu segapotoak berehala dena jakinarazteko, argazkiak ateratzeko, bideoak grabatu... zer ez dute egiten? Garai batean horrelako ezer ez zenean, nondik edo handik beti jakiten zen halakok gurdi garoa pertikaz behera poza-deran sartuta jarri ziola auzokoari; edo beste halakok alperra soro guenean ondo jasota zegoen lekutik, indarrak ezin sosegatu eta maldan behera bidali omen zuela. Baita hurrengo goizean auzokoa aitari idien eske etorri ere, alperra norbaitek beheko sasi artera bota ziola eta huraxe ateratzeko, eta aitak, berehala ulertu zer esan nahi zion auzokoak. Ohean goxo zegoen seme "indartsua" jaikiarazi eta idiekin, bera bidali, alperra jasotzera. To, lezioa!

Zer aldatu da? Nora begira gaude gurasook? Gazte batzuk, zergatik besteren gauzak txikitzeko jarrera, niretzat ez bada inorentzat ez? Eta denon onerako lana egiten ari denarekiko errespetu falta? Hezi gabeak ala gaizki heziak?

Denon onerako lanean behar luketen ertzainak ere, kaleko jantzita omen dabilta aparkalekuetan txurrit eginda autoa hartzera doazenen peskizan. Prebentzio neurriak omen, baina ez autoa har ez dezaten gomendiorik ez kauendiorik; horrek ez du dirurik ematen! Segapotoz abisua eta, hiru lau patruila bidera, "balizko gaizkilea" esposaturik basera. Esposak estuegi eta min: Isilik, bestela atzean lotuko dizkizugu eta! Basean, alkohol tasa zero eman eta, bi orduz hantxe eduki zuten herritar gazte bat, sekula ez omen zitzaien halakorik gertatu eta beren protokoloak ez omen zuen jartzen zer egin... Eta gero oinez bidali, bere autora eraman ere ez, ezta barkamenik eskatu ere... protokoloan ez zuen jarriko eta! Horiek ere edukiko dute izana ez bada izenen bat, ala?



NELSON BARBOSA
ERREFORMATAS
Gremioen koordinazioa
tel.: 687 837 011 Unzurruzaga, 9 behea **SEGURA**

PSIKOLOGI KLINIKOA



Jose Ramon Pato Prieto
Psikologian lizentziatua
Eitargokide zenbakia: E-2644
RPS: 420/01

AURRE ZITA ☎ 943 887 221 ☎ 610 020 041
JM Arana, 1 - 2. esk. esk. BEASAIN

**Helduen,
umeen,
bikoteen eta
sexologi
tratamenduak**

Hondakinen %80-a, baietz birziklatu!

Urte Berria aukera ona da asmo berriei ekiteko edo zaharrak berritzeko: ariketa fisikoa egin, lasaiago bizi, hizauntzak ikasi, dieta hobetu... Eta ingurumenari buruz zer? Krisi finantziero-ekonomikoa arazo nagusia dela etengabe errepikatzen zaigun arren, horren azpian Ingurumen krisi larria bizi dugula gogoratu behar dugu, gure ekoizpen eta kontsumo sistema gehienbat natur baliabideen zarrastelkerian eta hondakinen etengabeko sorkuntzan baitatza. Horregatik behar beharrezkoa zaigu hondakinen birziklaketa handitzea eta hori ere urteko helburutzat har dezakegu.

Hondakinen birziklaketaren aldeko adostasun zabala

Jadanik pauso batzuk eman dira hondakinen birziklapenari begira bilketa selektiboaren bidez, baina herritar gehiagok parte hartu behar du bilketa selektiboan eta material ezberdinak bilduz, posible delako eta ekonomikoa delako, oraindik orain alperrik material gehiegi galtzen dugu eta. Are gehiago inor birziklaketaren aurka ez dagoenean, ez alderdi politiko, ez erakunde, ez elkarte, guztiok hondakinen birziklaketaren alde azaltzen baikara. Horrela, Eusko Jaurlaritzak argitaratutako azken ekobarmetro sozialaren arabera, herritarren %74a prest dago honda-



kinak sailkatzeko. Kopuru altua zalantzarik gabe.

Eta Goierriin zer?

Sasieta mankomunitatearen datuen arabera, 2010ean sortutako hiri hondakinen %34a besterik ez zen birziklatzeko bildu, eta orain 10 urte %19a bildu bazen, ez dirudi hainbeste aurreratu dugunik. Amaiatu berri dugun 2011ko birziklaketaren datuak hobeak izango dira, materia organikokoaren bilketa ia Goierriko herri guztietara zabalduta, eta hainbat herritan bilketa horretara familien erdiak izena eman duelako, baina halere nahikoa al da? Nola lortu herritar gehiagok zaborraren bilketa selektiboan parte hartzea? Gipuzkoan bertan badi-ra beste herri batzuk atez ateko sistemaren bidez, % 80tik gorako materia birziklatzera biltzen dutenak:

Usurbil, Oiartzun, Hernani, Antzuola...

Itsasondon hondakinen bilketa selektiborako sistema berria eta arrakastatsua

Halaber Goierriin bertan badugu hondakinak bereizteko sistema berri bat, mistoa, Itsasondon hain zuzen. Bertan, edukinontziak mantentzen dira, birziklatzeko ez den zaborraren betiko edukinontzia izan ezik eta horren orde, familia bakoitzak ontzi grisa du, errefusa den zaborra astean behin biltzeko, salbuespen batekin, haur eta adinekoen fardelak. Partaidetza prozesu baten ondoren eta sistema martxan jarri zenetik bost hilabetera, jadanik birziklatzeko biltzen dena %92ra iritsi da, familien %70ak parte hartuz. Gainera sistema berriaren bidez, gaitako biletaren diru sarrerak handitu dira eta errefusaren kostoa berriz gutxitu.

Beraz, ia urte honen amaieran Goierriko hondakinen %80a behintzat birziklatzera iristen garen, atez ate, sistema mistoaren bidez edo beste batez, herritar guztion lankidetzarekin, baina zalan-tza eta aitzakiarik gabe.

Edurne Huesa Otegi

JAKIN BEHARREKOAK

Aranzadi zientzia elkar-teak lan ildo berria nekazaritza eta ingurumen osasunari lotua. Aranzadik baserritarrek kontzientziatu nahi dituen jarduerak gure lurraldeko dibertsitate biologikoa eta ondare naturalaren kontserbazioan duen garrantziaz. Horretarako ikerketa esparru berri bat zabalduta du giza jarduerak ondare naturalean eta dibertsitate biologikoan duen eragina aztertzeko, narrasti eta anfibioak bioadierazle modura erabiliz. <http://www.aranzadi-zientziak.org/berpetologia>

Jarduera agroekologikoa klima aldaketa leuntzeko onuragarriak dira. Orihuelako Eskola Politeknikoan izan den IV. Nekazaritza ekologikoa eta Klima aldaketako Topaketetan hori ondorioztatu dute. Urriaren 14 eta 15 bitartean ospatu dira topaketak, eta azkenaldian ekoizpen ekologikoaren inguruan eman diren aurreakuntzak aurkeztu ziren bertan. www.gencat.cat

Greenpeacek 40 urte: Gabonetan Greenpeace erakundeak 40 urte bete ditu. Ingurumenaren aldeko defentsan lanean arituta-koak eta planeta babesteko borrokan aurrera egindako urteak, guzti hori mundu mailako hiru milioi bazkide- ren babesarekin. Baina lan horretan jarraitzeko laguntza gehiago behar dute, bazkide gehiago lortuz. www.greenpeace.es

 **landarlan**
ingurumen taldea

Landarlan taldeak egindako orrialdea. Taldean parte hartu, gairen bat aportatu edo albisteen bat bidali nahi baduzu: 943161244 landarlan@yahoo.es

Goierriin bertan badugu hondakinak bereizteko sistema berri bat, Itsasondon. Partaidetza prozesu baten ondoren eta sistema martxan jarri zenetik bost hilabetera, jadanik birziklatzeko biltzen dena %92ra iritsi da, familien %70ak parte hartuz.

"Datorren iganden ni're jungo nitzen, ba!"

Maizpide euskaltzia

Ez dira gutxi izenburuan agertzen dena bezalakoak hitzetik hortzera erabiltzen dituzten goierritarrak. Jabetu al zarete zein "aje"ri buruz arituko garen gaur? Bada, horrela ez bada, erreparatu ondorengo adibideei, eta ikusi ea zer duten komunean:

- ✗ Mexikora joango banintz, ez nintzen Ciudad Juarez-etik pasatuko! (*desegokia*)
- ✗ Ardoa edango bazenu, mozkortu egingo zinen. (*desegokia*)
- ✗ Loteria tokatuko balitzait, erdia zuri emango nizun. (*desegokia*)
- ✗ Tosback Realeko entrenatzailea izango balitz, Reala orain 3. mailan egongo zen. (*desegokia*)
- ✗ Ordizia Rugby Taldeak burrungo biru partidak irabaziko balitu, mailari eutsiko zion. (*desegokia*)
- ✗ Euskaltegiako ikasleak gauean zintzo portatuko ez balira, gauzanari umorea aldatuko zitzaion. (*desegokia*)

Konturatu zarete, ezta? Goiko esaldiek horrela behar dute:

- ✓ Mexikora joango banintz, ez nintzateke Ciudad Juarez-etik pasatuko! (*egokia*)
- ✓ Ardoa edango bazenu, mozkortu egingo zinateke. (*egokia*)
- ✓ Loteria tokatuko balitzait, erdia zuri emango nizuke. (*egokia*)
- ✓ Tosback Realeko entrenatzailea izango balitz, Reala orain 3. mailan egongo litzateke. (*egokia*)
- ✓ Ordizia Rugby Taldeak burrungo biru partidak irabaziko balitu, mailari eutsiko lioke. (*egokia*)
- ✓ Euskaltegiako ikasleak gauean zintzo portatuko ez balira, gauzanari umorea aldatuko litzaioke. (*egokia*)

Maiz antzean erabiltzen dugun lehenaldiko forma hori sartzeko, "baldintzaileak" edo lehenengo parteak ez du "-ko" eraman-go... eta "izan" sartzea izango dugu, nahi izanez gero:

- ✓ *Duela bi hilabete Mexikora joan (izan) banintz, ez nintzatekeen / nintzen Ciudad Juarez-etik pasatuko!* (*egokia*)

- ✓ *Joan den larunbatean ardoa edan (izan) bazenu, mozkortu egingo zinatekeen / zinen.* (*egokia*)
- ✓ *Iaz Gabonetako loteria tokatu (izan) balitzait, erdia zuri emango nizukeen / nizun.* (*egokia*)
- ✓ *Clemente "bidali" eta gero, Tosback Realeko entrenatzailea izan balitz, Reala 3. mailara jaitsiko zatekeen / zen.* (*egokia*)
- ✓ *Ordizia Rugby Taldeak orain dela hamabost urte azken bost partidak irabazi balitu, mailari eutsiko ziokeen / zion.* (*egokia*)
- ✓ *Euskaltegiako ikasleak astelehen gauean zintzo portatu (izan) ez balira, gauzanari umorea aldatuko zitzaiokeen / zitzaion.* (*egokia*)

Bigarren parteari "orain" eransten badiogu, ordea, orainaldian joango da:

- ✓ *Duela bi hilabete Haitira joan (izan) banintz, orain, bebarbada, bilda egongo nintzateke!* (*egokia*)

Gogoratu, bestalde, "-ke" hori ... ondorioari (edo 2. parteari) jarriko diogula... eta ez baldintzaileari (edo 1. parteari):

- ✗ Mexikora joango banintzateke, ez nintzateke Ciudad Juarez-etik pasatuko! (*desegokia*)
- ✗ Loteria tokatuko balitzaidake, erdia zuri emango nizuke. (*desegokia*)
- ✗ Ordizia Rugby Taldeak burrungo biru partidak irabaziko balituzke, mailari eutsiko lioke. (*desegokia*)

Amaitzeko, **ez ahaztu** "birusa" hain hedatuta egoteak ez duela esan nahi txukuntzen ahalegindu behar ez dugunik! Zuzen erabiltzen ez dutenei **zuzendu**, **mesedez**, euskararen eta guztion onerako izango da eta!


Datorren igandean etorriko al hintzateke nirekin Tolosara, Alaitz?

Hiregatik balitz, urte osoan inauteri, On Mario!

ZUZENDU, BEHAR IZANEZ GERO...

1. Parisera joango bazinake, Eiffel Dorrea ikusiko zenuke.
2. Anoetara gurekin etorriko balitz, primeran pasatuko zuen Patxik.
3. Datorren igandean ni neu ere gustura joango nintzateke, bada, pilota-partida hori ikustera!
4. Jakin izan banu, ez nintzen telebistako saio hartara joango.

OHARRA: Lehenengoan, joango bazina behar du; bigarren-goan, gurekin etorriko balitz, primeran pasatuko luke (oraina); edo gurekin etorri (izan) balitz, primeran pasatuko zukeen / zuen (lehen); hirugarrena eta laugarrena zuzenak dira.



Parranda egitera joango balira...



Goierriko enpresak, elkartuta, mundura begira

Goierriko enpresa txikiak eta handiak elkarrekin ari dira lanean, ekonomia krisiaren ondorioz, munduan sortu den egoera berriari aurre egiteko asmoz. Lankidetzaz, elkarlana aukeratu dute tresnatzat. Lankidetzan ari dira Goierriko enpresa txikiak (Get), Goierriko enpresa handien beharrei erantzuteko trebatzen eta garatzen. Indar metaketa horretatik handiago eta lehiakorrago sentitzen direnez, munduko merkatuetara ere atera nahi dute, Get Goierri Basque Country markaren pean. Goiekiko Niko Errasti, Mikel Mujika eta Borja Urretabizkaia ari dira lankidetzari bidea errazten saiatzen.

2008az geroztik, ekonomia krisia urak astintzen hasi zenetik, Goierriko enpresak elkarlanean ari dira, Goiekik bideratuta. Niko Errasti, Mikel Mujika eta Borja Urretabizkaia, Goiekiko teknikariak dira, sare hori aurrera ateratzeko bidea errazten dabiltzanak. Bost talde edo foro dagoeneko martxan dira, eskualdera zein mundura begira.

Krisialdiek ikasteko balio izaten omen dute. Krisiak zer aldatu du enpresen filosofian?

Niko Errasti: Lehen, bakoitzaren beharretara zuzenduta aritzen ginen lanean. 2008an konturatu ginen gauzak aldatu egin zirela, eta enpreseko erantzuna ere azkarragoa behar zela. Dudarik gabe, garai berrietara egokitzeko eta krisiari aurre egiteko, garbi ikusten genuen beste era batera jokatu behar genuela. Banaka jokatu beharrean, sarean jokatzeko aukera ikusi genuen.

Enpresa txikiei dealdi bat egin genien, elkartu eta nahi zutenekin, lanean hasi ginen. Azken finean lankidetzat sarea da, tresna, herraminta.

Zeintzuk dira tresna horren helburuak?

Errasti: Enpresa txikiak banaka-banaka nahiko zailtasunak dituztenez, batuta indartsuagoak dira eta eurak ere hala sentitzen dira. Helburua litzateke, batetik, enpresa horien gaitasuna areagotzea, bestetik garapena eta lehiakorragoak izatea.

Paraleloki, beraiegangandik eskaera batzuk atera zirenez, enpresa traktoreen arteko beste bi foro ere badaude: enpresa traktoreen gerentee-na eta giza balliabideena. Datorren urteari begira beste taldetxo bat ere sortu nahi da internazionalizazioaren inguruan.

Zeini deitzen diozue enpresa traktorea?

Borja Urretabizkaia: Enpresa traktore bezala, enpresa handiak etaertainak sartzen ditugu. Enpresa txikiak traktionatzen dituzten enpresak, azpikontratazio

Krisia Goierri

Krisialdi ekonomiko honetan Goierri irla bat dela esan izan da. Goierri zein egoeratan daude enpresak?

Errasti: Goierri beste inguru batzuekin konparatzen badugu, Goierri ez dago hain gaizki, baina horrek ez du esan nahi krisirik ez dagoenik eta autokonplazientzia ona denik. Baina zer gertatzen da? Traktore enpresa garrantzitsu asko daudela, munduan zehar dabiltzanak, dibertsifikatuak eta internazionalizatuak. Horrek abantaila handiak sortzen ditu. Zergatik? Europa klasikoa ez da ari tiratzen, funtzionatzen, eskaerarik ez dago Europatik. Hemengo enpresa traktoreak Asian, Hego Amerikan eta abar zabaldua badaude, handik etortzen ari dira Europatik ez datozen eskariak. Horren bitartez ari dira hemengo enpresa handiak bizitzen eta enpresa txikiak, azpikontratazioak lana edukitzen. Enpresa horiek, munduan beste zenbait tokitan inplantatuta daude, plantak jarri dituzte, hemengoak mantentzeko.

Horretaz aparte zer gertatzen ari da? Lana beharbada badago, baina enpresa txikien arazo handienetakoa da momentu honetan, lana egiten ari direla, baina irabazi tarterik gabe. Adibidea oso garbia da: CAFek eskariak hartu ditu baina konpetentzia izugarriarekin. Eta konpetentzia izugarri horien aurka joateko prezioak moldatu eta jaitsi egin behar dira. Eskariak hartu bai baina prezio horretan egin behar dira. Hori da momentu honetan Goierri daukan erronka. Lehen prezio batean produzitzen zirenak, orain osagai eta abantaila gehiagorekin, prezio merkeagoan egiteko gai izan behar gara. Azken finean, azpikontratistei ere etortzen ari zaie errealitatea. Lehenagoko gauza berdinak

“Goierri beste inguru batzuekin konparatzen badugu, Goierri ez dago hain gaizki, baina horrek ez du esan nahi krisirik ez dagoenik”

edo hobeak merkeago egiteko gaitasuna eduki behar dute.

Beste puntu bat, garrantzitsua, enpresa askok komentzen digutena: txikiek lana badaukate, irabazi tarte gutxi, fakturatu egiten dute baina askotan arazo finantzieroa dituzte. Eta altxortegiko arazo handiak ere bai. Zenbait kasutan, inbertsioetarako aukerarik ez dago.

Urretabizkaia: Momentuz eusten ari dira, eta uste dut hobetzen hasten garenean, igoera horretan puntan ibiliko garela. Enpresa itxiera gutxi egon da eta langabeziari ere neurri batean eusten ari gara.

Errasti: Hemen, krisia noiz bukatuko den zain dagoenak, niretzat jai dauka. Hainbat jenderekin hitz egin ondoren, inork ez daki krisia noiz amaituko den, ekonomialari onenak ere ez. Baina nik ikusten dudana da, mundua berrantolatzen, berregituratzen ari dela. Guk geroen errealitatea birplanteatu egin beharko dugu. Geroen bizitza, geroen egiteko era... dena.

lanak ematen dituztenak. Askotan, produktu propioak dituztenak, munduan zehar dabiltzanak...

Enpresa txikiek elkarlanean hasi zinetenean, zein egoerarekin egin zenuten topo? Zein kezka zituzten?

Batetik, enpresa txikiek ikusten zuten, orain arte, erosi egin zietela, eta beraiek fabrikatzeaz eta produkziteaz arduratzen zirela. Lana oso ondo egiten dakite enpresek, baina krisia hasi zenetik konturatzen hasi ziren eroste hori ez zela hain erraza, krisia zetorren, lana gutxitzen ari zela... eta orduan beste planteamendu batzuk egin behar zituztela: bat zen, saltzen ikastea, kanpora ateratzen ikastea. Sekula egin gabe zeuden eta komertzializazio planteamendu baten beharra ikusten zuten.

Beste aldetik, enpresa txikiak, beraiek elkartuta, enpresa handiei eskaintzeko izugarrizko potentziala zutela ikusten zuten. Bakoitza bere aldetik, enpresa handientzat ari zen lanean eta askotan konpetentzia ziren. Baina elkartasunaren bidez, potentziala eskaini nahi zien enpresa traktoreei. Zertarako? Balio erantsizko proiektu handiagoak eta interesgarriagoak hartzeko. Azken finean, nahiz eta eguneroko lanean lehiakideak izan, sarearen bitartez enpresa txikiak elkartzen dira, enpresa traktoreek planteatzen dituzten balio erantsizko proiektuei erantzuteko. Eta horretan hasi ginen, enpresa handien eta txikien arteko harremanak sortzen.

Erraza izan al zen hasierako harreman hori?

Niko Errasti: Lan potoloa izan zen. Alde batetik, enpresa txikiek zeuzkaten potentzialitateak, ezagutzak eta jakinduria guztia mahai gainean jartzea, eta beste aldetik, enpresa traktoreek hori dena sinistea, hori dena ikustea eta akordio batzuk lortzea. Akordioak zeintzuk ziren? ‘Irabazi eta irabazi’ esaten dena. Enpresa handiei interesatzen zaie enpresa txikiak



Niko Errasti eta
Borja Urretabizkaia

Lankidetza sarea, enpresetatik gizartera

Bost taldek edo forok osatzen dute lankidetza sarea: pyme edo enpresa txikien hiru foro (30 enpresa), eta enpresa traktoreen arteko bi foro, bat gerenteena eta bestea giza baliabideetako. Goierritik kanpo, munduan ez omen dago Goierriin sortu den enpresa txikien arteko lankidetza saserik eta harrotasun handiz kontatzen dute Niko Errastik eta Borja Urretabizkaia. Lortek, zentro teknologikoa, Goierri Lanbide Eskola eta Goierri Fundazioarekin elkarlanean ari dira dagoeneko baina ikuspegi orokorrago batekin aritu nahi dute.

“Enpresetatik Goierri osora pasatu nahi dugu lan egiteko modu hau. Goierriko perspektiba hartu, Goierriko garapenean lan egiten dutenak elkartu. Hau dena guk bakarrik egiteak ez du zentzurik. Hau da dena konpartitu egin behar dugu, erakundeekin, mundu politikoarekin. Guk nahi duguna zer da? Gu bide bat egiten ari gara, behetik gora eta gure errealitatea mahai gaineran jartzen dugu eta guk egituratu nahi dugu, beste guztiekin. Hau abiapuntua izan dadila. Ireki, erantsi, moztu, kendu, garatu... hau irekita dago. Inportantea litzateke eskualdeko ikuspegi eta estrategia bat kontsentsuatzea eta bateratua edukitzea. Gure baliabideak ere direnak dira eta horiek ikuskatuta edukitzea, norabidea eta estrategia bateratua edukitzea, indarrak batzea, baliabideak arrazionalizatzea ekarriko luke, eta etekin gehiago ateratzeko aukera edukiko genuke. Irabaziak eskualdearentzat izango lirateke.”, diote Goiekiko teknikariek.

lehiakorrak izatea eta enpresa txikiei ere interesatzen zaie enpresa handiak ondo joatea, munduan zehar ibiltzea eta eskari onak ekartzea.

Hamar bat proiektu badiugu elkarlan horretatik sortutakoak. Kanpotik ere etorri zaizkigu. Azken batean, kolaborazio proiektu hau, traktore-azpikontratista artean gauzatzen ari da.

“Garai berrietara egokitzeko eta krisiari aurre egiteko, garbi ikusten genuen beste era batera jokatu behar genuela. Banaka jokatu beharrean, sarean jokatzeko aukera izan genuen”.

Borja Urretabizkaia:

Enpresa handiek planteatzen dizkigute behar batzuk dituztela, eta saiatzen gara enpresa txikien sare horren bitartez, traktoreek duten behar hori asetzen. Duela bi urte eta erdi hasi ginen eta dagoeneko 10 proiektu aurkeztu dizkigute.

Elkarlan horretatik elkar ezagutza handiagoa izango denez, emaitzak

aberasgarriagoak al dira?

Urretabizkaia: Alde batetik lortzen dugu handiaren beharra asetzea, baina beste alde batetik, txikiak aurrerapausoak emateko aukera izatea. Ziurrenik bakarka ezingo lukete behar hori asetu baina adibidez, bost enpresen arteko sinergiak aprobetxatuz, bostek duten ezagutza aprobetxatuz, ase daiteke. Zentzu honetan, bientzako da aurrerapausoa.

Errasti: Bere garaian ikusi zen, enpresa txikiak beraien proiektuak garatzeko zailtasunak zeuzkatela. Beharbada, enpresen arteko lankidetzak aurrera eramaten bazen ere, garapen teknologikoa behar zuten. Orduan ingeniariak bilatzen hasi ginen eta Lortekekin harremanetan jarri ginen. Beraz, proiektuak behar duen garapen teknolo-

dago. CAFek hornitzaile bakarra Alemanian dauka eta guk egingo diogu produktu bat, berdintsua, baina hobetua eta garapen aurreratuagoarekin. Alde batetik, alemaniarrei egin nahi diegu kompetentzia, eta beste alde batetik, produktuak hobetu nahi ditugu. CAFentzat interesgarria da bi kilometrotan enpresa azpikontratista bat hori garatzen duena edukitzea Alemaniara joan gabe. Beste alde batetik nahi dugu, produktu horrekin mundura ateratzea. Ez da CAFi saltzeko bakarrik. CAFi saltzen diogu baina CAFi saltzetik aparte, beste enpresa asko daude munduan saltzeko aukerarekin eta merkatua zabaltzeko aukerarekin. Horrelako proiektuekin gaude.

Enpresarien artean ba al zegoen elkartasunerako

Enpresa txikiak banaka banaka nahiko zailtasunak dituztenez, batuta indartsuagoa dira eta eurak ere hala sentitzen dira.

gikoa osatuaz erantzuten die enpresa traktoreei.

Adibide bat jartzearen: lehen lehiakideak, Palentziakoa edo Leongoa ziren. Orain, eguneroko lanetatik aparte proiektu hauetan lehiakideak zeintzuk dira? Alemaniarrak, finlandiarrak, norvegiarrak... azken finean, Alemanian eta Finlandian egiten diren produktuak gerturatu eta hobetzen saiatzen gara. Egia esan, beste estadio eta maila batean ari gara lehiatzen. Horretarako, enpresak elkartu, beraien jakinduria mahai gainean jarri, garapen teknologikoa egin eta produktuak atera behar dira.

Adibidez, CAF enpresarekin ari gara proiektu batzuetan eta CAFi erantzuten diogu. CAF gainera pozik

pentsamolderik edo mentalitaterik?

Urretabizkaia: Proiektu guzti hauek alderdi teknikoa daukate baina paraleloki, sensibilizazio lana ere egin behar da. Beraientzako berria da. Gure helburua da, Goiekin egiten denaz aparte, beraiek gai izatea beraien kabuz egiteko.

Errasti: Azken batean guk nahi duguna da, enpresak gaitzea. Gainera enpresak ez zeuden ohituta kultura honetara. Gu oso kultura lehiakorrean hezi gara. Ondoan zeuden enpresak elkar lehiatzen ari ziren. Gaur egun pixka bat, kultura hori aldatu egin behar da nahiz eta zenbait kasutan kompetentzia izan. Aurrerago joan nahi badugu, beste kultura bat eduki behar

“Sektore berrietara salto egitea komeni zaigu”

Beste helburu bat ere badute enpresa txikien foroek: “Zergatik ez guk daukagun jakinduariarekin, ezagutzarekin, daukagun urteetako esperientziarekin baita ere, dakiguna beste sektore batzuegana hurbildu? Sektore emergenteak eta sektore berriak deitzen dioguna”, dio Niko Errastik. Zein sektoretaz ari diren hizketan zehaztu du Borja Urretabizkaia. “Ez da erraza asmatzen zein izango diren. Baina nazioarteko joerak zer dioten ikusita eta Goierriko errealitatea ikusita, energia ezinbesteko sektore bat da, guretzako lehentasunezkoa dena. Egia da energia oso zabala dela eta energia munduan lan ildo ezberdinak daukela. Ingurugiro sektorea, mugikortasuna... Beste bizpahiru sektoretan ere ari gara lanean, ezezagunagoak direnak, berriagoak direnak, baina guretzat interesgarriak direnak: biozientzia eta zientziaren industria adibidez. Hirugarren adinarekin lotutako beste sektore bat ere badago... Beharrezkoa ikusten dugu gure enpresek sektore berri horietara jotzea. Alde batetik, kanpoko merkatuetan sartzea beharrezkoa da baina sektore berrietan sartzea ere bai. Gaur egun lanean ari garen sektoreak oso sektore helduak dira, eta geroz eta zailagoa da balioerantsi asko edukitzea eta geroz eta zailagoa da kompetentziarengandik desberdintzea. Txina, India eta merkatu horien aurka joatea oso zaila da. Beraz, sektore berrietara salto txiki bat egitea komeni zaigu, hemengo ezagutza aprobetxatuz”.

Ildo horretatik, aztertzen ari dira zein negozio berriren aukera egon daitekeen, bai enpresa berriak sortzeko edo hemengo enpresak bertan sartzeko. “Berritzen ez bada, etorkizunari begira ez badugu amesten, hurrengo asteari begira bakarrik lana egiten badugu, ez goaz inora. Zentzu honetan ez badugu eboluzionatzen eta apustu bat egiten, arazoak edukiko ditugu. Beharrezkoa ikusten dugu sektore berrietara jotzea”, gaineratu dute.

dugu: elkartzea, garapen handiagoak egiteko gai izateko eta elkartrukaketa horretatik lehiakortasunaren bidean aurrera pausoak emateko.

Lankidetzak kultura ikasi dute eta zenbait enpresa elkartu dira zenbait proiektutarako. Traktoreekin lortu nahi izan dena zer da? Dibertsifikazioa. Produktu propio bat ateratzea eta bide horretan joatea. Hori enpresa txikientzat oso-oso inportantea da.

Kostatzen diren pausoak dira baina niri iruditzen zait jendea ari dela konturatzen, beste biderik ez dagoela.

Hiru urte hauetan enpresen jarrerak

aldaketarik ikusi al duzue?

Urretabizkaia: nik uste dut enpresa askori begiak ireki dizkiela guzti honek. Ikusten zen zerbait zen, baina beraiek ere begiak ireki dituzte. Gaur egungo egoera gaitzetsu beraiek ere zerbait egin behar dute.

Errasti: Zoritxarrez, sortzaileak edo kreatiboak izaten hasten gara beharrezko ondorioz. Baina sortzaileak eguneroko bizitza guztian izan beharko genuke. Azken finean da, bizirik egotea eta hori ahaztu egiten zaigu. Eguneroko lanean sartzen gara eta ez gara pentsatzen jartzen. Orain, zeinek jarri digu planteamendu guzti honetan? Beharrak.

Mundura begira Get Goierri Basque Country izenarekin

Goierriko Enpresa Txikien lankidetzaren sarearen ondorioa da Get Goierri Basque Country. Nondik nora iritsi zarete Get Goierri?

Urretabizkaia: Enpresa txikien arteko batura horretatik Goierriko enpresa handiei erantzutea izan da lehenengo helburua. Baina era berean Goierritik kanpoko enpresei erantzuteko aukera ikusi dugu. Get Goierri Basque Country proiektua hortik sortu zen.

Errasti: Eboluzioa izan da: alde batetik gaitzea edo trebatzea, eta bestetik enpresa traktoreen beharrei erantzutea. Behin horra iritsita enpresa txikiek esan zuten: "uste genuen txikiak ginela baina elkartuta, badirudi, potentziala daukagula, eta azken finean gaitasuna daukagu balio erantsiko proiektuetan enpresa traktoreei erantzuteko. Eta enpresa traktoreak non dabilta? Mundu guztian. Beraiek planteatu zuten, zergatik ez dugu traktoreen eta azpikontratisten arteko planteamendua zabaltzen eta mundura ateratzen? Munduan ere traktore asko daude erantzuteko. Zergatik ez gara joaten Frantziara, Alemaniara, Ingalaterrara edo edozein lekutara?"

Zer eskaintza egiten duzue?

Urretabizkaia: Esperientzia berezia da Goierrikoa. Guk bailara saltzen dugu. Historikoki egon den ezagutza eta prozesu baten bitartez, lehiakorrek garen bailara bat. Bailara saltzen dugu, sekula ez dugu enpresatza hitz egiten. Kanpoko enpresetara joaten garenean, harritu egiten ditu horrek. Ohituago daude enpresa eta enpresa arteko harremanekin. Balioerantsi bat ere badugu: guk, 200 enpresa saltzen dizkiegu, batera. Zortea daukate gainera, zentralizatuta baitago hemengo sarearen bitartez. Abantaila handia da hori beraientzat.

Errasti: Forja, fundizioa, ebaketa, galdaragintza mekanizatua, tratamendua eta montajea eskaintzen du Goierri, eta gainera bezeroaren etxean jartzen ditugu preziorik onenean. Hori dena, 15 kilometro inguruan egin dezakegu, Goierri. Hori oso erakargarria da. Horregatik enpresa batzuk interesatuta etorri dira, gure eredia ezagutzera.

2011n, bi jardunaldi egin zenituzten nazioarteko hainbat enpresekin.

Errasti: Jardunaldian, suediarrek, frantziarrek, galestarrak eta belgiarrek etorri ziren. Enpresa handiak ziren askotan eta zaila izaten da enpresa bakar bat bisitatzea etortzea. Horregatik, lan planteamendu bateratu honek piztu du beran interesa. 15 kilometroko ingurunean, hori dena eskaintzeko aukera baldin badago, interesatzen zaie Goierriko enpresak ikustea eta baloratzeko ea lehiakorrek diren ala ez jakiteko. Eskari batzuk izan ditugu kanpotik. Bat edo beste hartu dugu Suediatik. 15-20 langileko Goierriko enpresa txikiak Suediara



Munduan barrena zabaltzeko egiten dute katalogoa.

zuzen-zuzenean esportatzen aritzea, izugarria da.

Europa aldean dago beraz etorkizuneko merkatua?

Urretabizkaia: Enpresa gehienentzako merkatu erakargarria Frantzia da nire ustez. Gertutasunagatik eta ondo doan herrialde bat delako. Bertan daukagu eta edozein enpresarekin harremanak mantentzeko gertutasun horrek eragin egiten du. Oso gertuko merkatu bat da eta nik uste dut osagarritasun bat badagoela euren eta gure artean. Alemaniak-eta badituzte beste herrialde batzuk inguruan, Polonia adibidez, eta haiek askoz ere merkeagoak dira eta haiekin konpetentzia egitea zaila da. Frantziarrentzat lana egitea bideragarria da.

Errasti: Internalizazio planteamendu guzti honetan, merkatu berriak irekitze honetan, saiatzen ari gara gauza bat, gaurko egunean, ezinbestekoa dena: marka batekin ari gara kanpora ateratzen. Gure marka, Get Goierri Basque Country da. Hori indartu eta bultzatu egin nahi dugu. Horren barruan daude Goierriko enpresa

**Enpresa txikiak banaka banaka
nahiko zailtasunak dituztenez,
batuta indartsuagoa dira eta
eurak ere hala sentitzen dira.**

txiki guztiak.

Urretabizkaia: Gure helburua litzateke, nazioarteko merkatuetan gure marka errekonozitzea. Oso zaila da. Baina lortzen baldin badugu, herrialde edo sektore konkretu batzuetan, zerbait bada.

Errasti: Honek atzetik, birplanteamendu bat ekarriko du: pentsa Get Goierri Basque Country beste dinamika bat, beste indar bat hartzen duela, munduan posizionatuta gaudela. Eskaintzak etorriko lirateke eta hori dena gestionatu egin beharko litzateke. Goiekin daukagun estruktura txikia izango litzateke baina horretarako foro guztien artean zer egin eta nola egin planteatu beharko litzateke.

Otsailaren 3tik aurrera Goierri ezberdina izango da

Goierritarra aldizkariak 22 urte egin ditu Goierri egiten; euskaraz bizi nahi duen Goierri egiten. 413 Goierritarra kaleratu dira dagoeneko. Hamaika albiste, historia eta istorio bildu ditu. Goierriren erreferentzia izan da 22 urteotan, euskaraz bizi nahi dugunon erreferentzia.

Urte hauetan guztietan, egoera berrietara egokitzen jakin du eta tartean, beste proiektu batzuk ahalbidetzen ere lan egin du. Horren adibide nagusia, Goierriko Hitza egunkaria da. Makina bat kontu goxo bizi izan baditugu ere, oztopo bat baino gehiago izan da 22 urteotan. Baina euskararen indarrak lagunduta, irakurleek ematen duen indarrak lagunduta, guztiak gainditu izan ditugu.

Erronka berria

2012ra begira, erronka berria du Goierritarra aldizkariak. Prentsa idatzia errentzat ez dira garaia onenak. Baina aurrera egiteko garaia da, eredu berriak eta apustu berriak egiteko garaia da.

Bidelagun egokia eta naturala aurkitu du Goierritarrak bide horretarako. Urretxu-Zumarragako Otamotz aldizkaria. Goierritarra aldizkaria hamabosteka-

ria da eta Otamotz aldizkaria hilabetekaria. Otsailaren 3tik aurrera, astekaria izango da sortuko dugun produktu berria.



Beharrak sortu du elkarlan hau: maiztasunean irabazteko beharrak, erreferentzialtasunean irabazteko beharrak, produktu berria sortzeko beharrak eta Goierriko Hitzaren estrategia berdinetik jarraituz, Goierri oso bezala lan egiteko beharrak.

Irakurleekin, iragarleekin eta adituekin egindako ikerketak eta hausnarketak ere ondorio horretara eramango gaitu. Goierritarrak, gehiago eragin nahi du euskararen normalizazioan eta eskualdeko komunikazioan.

Astekaria

Berria, berritzailea, bizi, bakarra, berezia... Izango da Goierriko astekari berria. Betiko izaerari eutsiz, diseinu berritzailearekin eta eduki berriekin jaioko da Goierriko astekari berria. Hori bai, inoiz baino indartsuago izango da, indarrak batzeak eta elkarlanak ematen duen indarra izango baitu.

Otsailaren 3tik aurrera beraz, inoiz baino maizago eta indartsuago elkar ikusiko dugu.



Kol. zkia.: 764



Nerea Larrea Oyarbide

Aho kirurgia
Inplantologia
Periodontzia

Artikulazio eta ahoko minak
Radiologia digital zerbitzua
Eskaner digitala

Dulce Maria Loinaz, 3 Beasain 943 088 118



ZEGAMA
OKINDEGIA


Eskuz egindako ogi naturala

Intxausti eremua, 14G-14H nabeak
☎ 943 80 10 66 **ZEGAMA**

SALMENTA PUNTUAK:

Beasain: Oskarbi, Osina, Natxo dietetika, Ekilore, TPT, Barandi Delicatessen.
Ordizia: Sabino, Muno, Osasun eta Gorosti. **Lazkao:** Lasa, Viana, Ainhoa dietetika, Noemi frutadenda. **Olaberria:** Lurdesen denda. **Legorreta:** Dorronsoro. **Zegama:** Kooperatiba eta Maria Jesusen denda. **Idiazabal:** Joxan harategia, Eguzki dietetika. **Ormaiztegui:** Inaki Erosle. **Zumarraga:** Rueda frutadenda, Ametsa harategia, Ekilore dietetika. **Urretxu:** Dia, Belarzin. **Legazpi:** Jabi harategia, Izkuntza, Apatxo, Txitxiki, Uriarte-Pinedo.

SAGARDOA TXOTXETIK GOIERRIN



tolare sagardotegia

AULIA
LEGORRETA

txotx denboraldia 2012

sagardoa botilan salgai urte osoan Tel. 607365743
tel. 943 806066

OTATZA
TOLARE SAGARDOTEGIA

Aste guztian zabalik, astelehena eta
asteartea ezik. Larunbat eta igandeetan
eguerdiz ere irekita
(asteaz zehar eguerditan enkarguz)

☎ 943 80 17 57
ZERAIN

tolare sagardotegia

BEGIRISTAIN
IKASTEGIETA

txotx denboraldia 2012

sagardoa botilan salgai urte osoan Tel. 607365743
tel. 943 652837

Olagi Sagardotegia
Jatetxea

Urte guztian
zabalik

Eguneroko menua
Karta
Sagardotegiko
meua

☎ 943 88 77 26
ALTZAGA

Orain kupela gehiago

AMEBI
Jada irekita!

Sagardotegia

☎ 943 16 25 23
Zubierreka, 9 **LAZKAO**

ZALBIDE
TOLARE
SAGARDOTEGIA

Egunero 19:00etatik aurrera
Ostiraletan eta asteburuetan
eguerditan ere zabalik

☎ 943 65 21 76
ABALTZISKETA

TXIMISTA
sagardotegia

Egunero zabalik, eguerdi eta gauean

Gudarien Etorbidea

☎ 943 88 11 28
ORDIZIA

URBITARTE
TOLARE SAGARDOTEGIA

Egunero
zabalik

Zatoz lagunarteko
giroaz gozatzeraz!

☎ 943 18 01 19
ATAUN

ETXE-ZYRI
SAGARDOTEGIA - JATETXEA

☎ 943 88 20 49
OLABERRIA



Gorka eta Jon Izagirre Euskaltel-Euskadi taldeko txirrindulari profesionalak

Australian hasi eta Pariseraingo, zaletasuna ogibide bihurturik

Txikitatik egin dutena eta gustuko dutena bizibide dute Gorka (24 urte) eta Jon (22 urte) Izagirre ormaiztegiarrek. Txirrindularitzaren gorenean dabilta Euskaltel-Euskadi taldearekin. Denboraldia Australian hasiko du Gorkak, Mallocan Jonek. Gorkak Frantziako Tourrean hartuko du parte; Italiako Giroan Jonek. Kostata izan bada ere, bi anaiak elkartu eta errepasoa egin diogu euren txirrindularitza ibilbideari.



Gorka eta Jon Izagirre anaiak, Euskaltel-Euskadiko taldeko txirrindulariak dira. Txirrindularitzaren gorenean dabilta bi ormaiztegiarrak. Etxetik kanpo egun asko pasatzen dituzte eta biek egutegi ezberdina daukatenez, hitzordua jartzea zaila egin zaigu. Dena den, gabon inguruan elkarrekin izan dira etxean eta Gorka Australiara joan aurretik, hizketaldi luzea egin dugu.

Kosta egin zaigu biokin batera hitzordua jartzea. Bat ez bazen bestea falta izaten izan zen etxean. Karreretan ere gutxi ibiltzen al zarete elkarrekin?

Gorka: Gutxitan.

Jon: Iaz denboraldi hasieran, Australian eta Mallorcan, eta klasikaren batean elkarrekin

aritu ginen. Hortik aurrera, bakoitza bere aldetik.

Gorka: Aurtan Mallorcan eta Haut Varren ibiliko gara elkarrekin. Hortik aurrera gutxi.

Entrenamenduak ere ezberdinak izango dituzue beraz.

Gorka: Bai, gehienbat intensitate aldetik. Nik denboraldia lehenago hasten dut.

Jon: Ni otsailean hasiko naiz. Gorkak badaramatza hilabete batzuk entrenatzen eta nik gutxi xieago.

Jon Girora eta Gorka Tourrera

Hiru asteko lasterketa banatan parte hartuko dute Izagirretarrek. Jonek, Italiako Giroan eta Gorkak Frantziako Tourrean. Jonek lehenengo aldia izango du Giroan eta Gorkak, Tourrean, bigarrena.

Zuk, Jon, lehenengo aldiz hartuko duzu parte hiru asteko lasterketa batean.

Jon: Nieve doa lider bezala eta ea ahal dugun bitartean laguntzen diogun. Telebistan oso erraz ikusten da sofán eserita, kaminoan jarritakoan ez dakit nola joango garen, baina gogoarekin nago.

Giroko portutzarrak ezagutuko dituzu beraz.

Jon: Oraindik ez dut askorik ikusi. Ez ditut ezagutzen baina gogorrak izango dira.

Gorka: Beste modu bateko portuak dira, hemen ez dago horrelakorik.

Zuk, Gorka, hiru asteko lasterketetan baduzu esperientziarik. Iazko Frantziako Tourrean parte hartu zenuen.

Gorka: Azkeneko momentuan joan nintzen Tourrera. Hasieran Girora joatekoa nintzen, baina Giroa baino ia hilabete lehenago Girora ez nintzela joango esan zidaten. Ez zidaten ezer ere esaten, Tourrerako ere ez... halako batean Asturiasko Itzulian beharbada Tourrean parte hartzeko bezala egongo nintzatekeela esan zidaten, baina ezer segururik ez. Suitza korritu eta gero, azkeneko momentuan esan zidaten Tourrera joango nintzela. Baina gustura. Beldurrarekin edo errespetuarekin joan nintzen, niretzako lehenengo itzuli handia zen eta. Hiru aste hori aritzea, gorputzak nola erantzun... beti beldur hori izaten da. Baina ondo.

Etaparen batzuetan aurrean ere ibili zinen.

Gorka: Bai, gustura. Dena eman genuen behintzat.

Zer moduzkoa iruditu zitzaizun hiru asteko karrera?

Gorka: Oso luzea. Lasai hartu beharrekoa. Momentu txarrak asko egoten dira, baina jarraitu egin behar, burua makurtu eta aurrera, helmugara iritsi eta horrela pasatu. Hurrengo egunean beharbada ondo zaude. Baina jakin egin behar da momentu horiek ere pasatzen.

Jon: Psikologikoki esaten dute dela gogorra. Bukatu. Hurrengo egunean berdin. Lekualdaketak...

Gorka: Lekualdaketak gogorrak dira. Lasterketak bukatu eta bi ordu autobusean. Giroa okerragoa da, lekualdaketa luzeagoak daude, bai lasterketa hasi aurretik, bai ondoren.

Tourrean, Pirinioetako etapetan zer sentitzen da?

Gorka: Ikaragarria da! Pirinioetako lehenengo etapako lehenengo portua igotzen hasi aurretik, aurreko herrietan, ikurrinak ikusten hasten zinen. Etxera gerturatzen ari ginela sentitzen nuen. Ikurrinak ikusi, oihaak.... Jakinda ondo zoazela, hazi egiten zara. Gustura.

Txirrindulari gazteen helburua profesionaletara heltzea izaten da. Behin profesionaletara igotzea lortu ondoren, zein izaten da helburua edo ametsa?

Gorka: Mantentzea.

Jon: Ailegatzea ez da erraza, baina ailegatutakoan jarraitzea, urtez urte ikastea eta hobetzea izaten da helburua. Gauza gehiago etortzen badi-ra hobeto, baina kategoria horretan ahalik eta urte gehiena mantentzea da asmoa.

Azkenean, guri gustatzen zaiguna, txikitatik egin duguna da eta gustatzen zaigun horretan lan egitea ere estimatzen da.

Txirrindularitzarentzat ez dira garairik onenak.

Gorka: Urte dezente daramatzagu txirrindularitza ondo ez dagoela esanez. Baina azkeneko urteetan, Protourra eta liga hauek sartu direnetik lasterketak, hemengoak ere bai, desagertzen joan dira eta ondorioz, taldeak ere bai.



biok
zerbitzuak

kudeaketa
fiskala
kontablea
merkatala
laborala

Tel 943 88 44 00
Faxa 943 80 51 27
www.biokzerbitzuak.com
Ordizia Urdaneta, 7



SILVIA MIRAS CASASAYAS
ODONTOLOGOA
KOL. Zko. 649 RFS. 223/07

TEL./FAX: 943 88 92 87 SAN INAZIO KALEA, 2 20200 BEASAIN - (GIPUZKOA)



Gorka

Gehien gustatu zaizun lasterketa:

Karrera bezala, Flandeseko klasika. Baina gustatuko litzaidake Euskal Herriko Itzulia Euskaltekin korritzea eta ondo ibiltzea.

Lasterketarik gogorrena?

Tourra. Nik uste dut hiru asteko lasterketak kriminalak direla. Ez Tourra bakarrik, hiru asteko karrera guztiak. Hiru aste egote hori gogorra da.

Porturik gogorrena:

Plateau de Beille eta Agnello.

Entrenatzeko leku bat:

Goierri eta Sakana onenak direla esango nuke. Hau baino toki hoberik ez dut uste dagoenik, dena kontuan hartuta. Trafikoa, kaminoak, mendiak... Hemen dana daukagu.

Txirrindulari bat:

Miguel Indurain.

Bidaietara beti eramaten duzun zer-bait:

Ordenadore eramangarria. Hoteletan wifia egoten da. Lehenengo gauza klabea galdetzea izaten da.

Urte Berriari zer eskatzen diozu?

Osasuna.



Azkenean Formula 1en itxura hartzen ari da txirrindularitza. Talde indartsu-indartsuak ari dira sortzen eta besteak, txikiagoak, ez daukate hor mantentzeko aukerarik.

Jon: Batzuek dena daukate eta besteak ezer ere ez. Karrera batzuk daukate izen guztia, Protourrekoak, eta hemengo karrera txikietara, Ordiziara adibidez, ez datoz talde handiak.

Gorka: Dena desagertzen ari da eta oso muturreko egoera jartzen ari da.

Eta karrera berriak ari dira sortzen Txinan, Qatarren... dirua dagoen lekuetan.

Gorka: Kanadan ere bai. Errusian ere beste karrera bat sortuko omen da.

Jon: Omanen, Australian...

Gorka: Globalizatzen bezala ari da, baina betiko karrera txikiak desagertzen ari dira. Hemengoendako eta guretzako ere ez da batere erraza hemengo lasterketetara etortzea. Adibidez, iaz Tourra

korritu nuen eta Tourra bukatu eta hurrengo egunean zen Ordiziakoa. Antolatzaileek duela bi urte nik irabazi nuen, etortzea nahi zuten, niri ere gustatuko litzaidake etortzea, baina ezinezkoa zen.

Jon: Karrera handi horiek jan dute terrenoa. Talde txikiak etortzen dira horrelako lasterketea txikietara, diru askorik ere ez dago asko... Jendea ere ez da hainbeste bolkatzen, ez da jende asko azaltzen. Enpresek ere ez dute asko inbertitzen taldeak sortzeko. Ez da hain erraza mundu honetan sartzea. Badakigu gorabehera asko egon direla, beti dago positi-

boaren etiketa, eta enpresa askok ez dute sartu nahi. Zaila dago.

Txirrindularitzako gorena Tourra dela esaten da.

Jon: Hala da, oihartzun handia dauka. Munduko telebista guztiak joaten dira, eta nahiz eta txirrindularitza ez jarraitu, Tourra mundu guztiak ezagutzen du. Tourra korritzea, talde batentzat eta txirrindulari batentzat oso garrantzitsua da.

Gorka: Beste alde batetik, Protourraren eta globalizazio horretan, Liga horretan dauden lasterketa horiek, indar handia hartzen ari dira, Tourraren mailan jartzeraino.

Puntuazio sistema bat dago eta Tourrak puntuatzen du, baina Australiakoak ere bai. Euskal Herriko Itzuliak ere bai,

Kanadakoak, Txinakoak... Horiek denak maila berdinean daude eta inportantzia berdina daukate. Tourra Tourra da baina garrantzitsua dira besteak ere.

Jon: Babesleentzat oso garrantzitsuak dira azkenean. Puntuak lortzeko Txinako kharren ere ondo ibiltzea beharrezkoa da. Urte gutzian ondo ibili behar da.

Gorka: Puntu nahiko lortzen ez bada mailaz jaisten zara eta mailaz jaiste hori, gaur egun behintzat, aberia handia litzateke. Protourrekoen eta Kontinentalen artean alde handia dago eta mailaz jaista atzerapauso handia litzateke.

Jon: Futboleko liga bezala da. Bigarren mailako futbol talde bat bezala ibiliko ginen Kontinentalean.

Presiorik sentitzen al duzue?

Gorka: Denboraldi hasieran

Gorkaren denboraldia:

Dagoeneko Australian dago Gorka eta han hasiko du denboraldia: "Gero Mallorca, Haut Var Frantzia, Paris-Niza eta kriterium internazionala, Euskal Herriko Itzulia. Deskantsua. Maiatza bukaera aldera Alemania aldean hasiko nintzateke, Suiza edo Dauphine, gero txapelketak, eta gero Tourra. Hortik aurrera ez dakit".



Jon

Gehien gustatu zaizun lasterketa:

Belgikako klasikak, Roubaix eta Flandes. Egia esanda, ez nituen oso ondo egin baina xarma berezi hori daukate. Afizioa, ibilbidea erabat ezberdina da... Oso gogorra da baina aldi berean polita.

Lasterketarik gogorrena?

Nik hiru asteko karrerarik korritu ez dudanez, klasika horiek.. Down Underrekoak, Amstell... izugarrizko abiadan ibiltzen zara, aldapa motz baino labuarrak asko daude... oso gogorrak egin zitzaizkidan horiek.

Porturik gogorrena:

Ez naiz gogoratzen. Italiakoren bat seguruenen.

Entrenatzeko leku bat:

Goierrri inguru hau polita da. Tolosa aldeko bideak, Nafarroa aldera joan gaitezke... Beti ingurune honetan ibiltzen gara eta egia esanda nahiko lasaiak dira trafiko aldetik.

Txirrindulari bat:

Ulrich. Txikitatik gustatu izan zait.

Bidaletara beti eramaten duzun zerbait:

Ordenadore eramangarria. Pelikulak, musika, interneta... dena daukazu. Skypea ere badauka, familiarekin eta lagunekin hitz egiteko...

Urte Berriari zer eskatzen diozu?

Kirol mailan, maila honetan jarraitzea, taldeak beste bi urte gehiagoan jarraituko balu polita litzateke. Hobetzen jarraitzea etengabe. Karreraren bat eroritzen bada hobeto. Pertsonalki, ondo gaude orain, beraz, orain bezala egotea.

ez baina bukaera iristen denean bai. Txinan, Kanadan... azkeneko karrera horietan, justu zabiltzanean, hurrengo urtean zalantzan egon zaitezkeela ikusten duzu eta puntuak nola edo hala behar izaten dira.

Jon: Gu sekula ez gara talde irabazlea izan. Beste talde batzuek izarrak dituzte, guk Samuel daukagu, baina irabazleak ez gara izan sekula. Fitxaje aldetik ez daukagu abaniko zabal hori beste taldeek bezala, eta mugatuago gaude. Protourrean gaude oraindik, eta ahal dugun bitartean eutsiko diogu.

Babesleak aipatu dituzue. Goierriko enpresa batek, Ampok, egin zuen apustua. Gorka, zu, Contempolis Ampo taldearekin pasa zinen profesionalelara.

Gorka: Niretzat garrantzitsua izan zen oso. Ampo sortu ez balitz eta aukera hori emango ez balidate, ni seguruenen, ez nintzatekeen nagoen tokian egongo. Ni afizionatu nintzela

Fundazioak ez zuen niregatik apusturik egin eta azkenean beste bide batzuk bilatu behar izan nituen. Amporena sortu zen, hor sartu nintzen eta hor erakutsi nuen balio nuela. Nire aldetik, eskertze-koa da.

Contempolis Ampotik Euskaltelera pasatu zinen. Hotsak badabiltza Euskaltelek ez duela babesten jarraituko.

Gorka: Aurten bukatzen zaio babesle konpromisoa, baina egia esan nahiko lasai gaude. Uda hasterako nik uste gauzak nahiko argituta egongo direla, edo jarraitzen duten ala ez behintzat esango dute-

la. Horren arabera, geure bideak hartu beharko ditugu.

Jon: Nik behintzat, ez dut horretan pentsatzen. Guk gure lana daukagu, guk gure lan hori ahalik eta ondoen egingo dugu, errepidean, noraino ailegatzeko gai garen erakutsiko dugu. Zuzendaritzak ere bere lana ahalik eta ondoen egin dezala eta taldea ateratzen bada, ondo.

Gorka: Bakoitzak bere lana ondo egitea da gakoa.

Ziklo krosaren garaia da orain. Pena ematen al dizue ez parte hartzea?

Gorka: Handia! Profesionaletan nagoenetik beti galdetu eta eskatu izan dut,

karreraren batean parte hartzeiko baimena, gutxienez herrikoan edo Itsasondokoan... baina ez digute uzten.

Jon: Guri gustatzen zaigu ziklo krosa, bai neguko pres-takuntza bezala, bai ziklo krosa bultzatzeko. Baina oraingoz ez daukagu baime-nik.

Garai batean txirrindulari onek ere parte hartzen zuten ziklo kros probetan.

Jon: Orain ere batzuk korritzen dute, baina Euskaltelen filosofian ez da sartzen.

Gorka: Nire kasuan ulertzen dut, urtarilaren Sean Australiara noalako eta taldeak lesionatzeko beldurra izan dezakeelako. Baina Jonen kasuan, lasai hasi behar izanez gero, ez dut uste arazorik egon beharko lukeenik.

Jon: Erorketen aitzakia jar-tzen dute askotan baina zelaian erortzea hobea izango da, karreteran erortzea edo kotxe batek jotzea baino.

Jonen denboraldia

Mallorca, Haut Var Frantzian, Almeria, Murtzia, Tirrenoa Italian. Iaz nahiko gustura gelditu nintzen lasterketa horrekin eta aurten gogo gehiagorekin noa. Flandes eta Rubaix klasikak, Castilla-Leon eta Giroa. Atsedena hartu ekaina partean, eta bigarren blokea aurtengoa antzekoa izango dut: Ordiziako klasika, Romandia...



Gaztelekuen arteko topaketa

Idiazabalgoak, Itsasondokoak eta Zegamakoak elkartu eta areto futbol txapelketa jokatu dute

Gabon garaian gaztelekuek ekintza bereziak antolatzen dituzte, ikasleak opor garaian daudela aprobetxatuz.

Idiazabal, Itsasondo eta Zegamakoek adibidez, urtarilaren 4an, lau gaztelekuen arteko areto futbol txapelketa jokatu zuten Idiazabalen. Sari berezia zegoen jokoan: partidurik gutxien irabazten zuenarentzat 'zigorra'. Alegia, beste ekimen bat antolatzea alegia. Itsasondoko Gaztelekuari dagokio ekintza antolatzea.

Idiazabalgo, Itsasondoko eta Zegamako Gaztelekuetako nerabeak, Idiazabalen elkartu ziren urtarilaren 4an, arratsaldeko 4etan. Kirol arropak jantzi eta baloiari ostikoka aritu ziren. Areto futboleko txapelketa jokatu zuten. Hiru talde eta 60 nerabek elkartu ziren.

Kirola egitera bultzatu nahi izan dituzte gazteak, baina helburu gehiago zituen ekimenak. Batetik, nerabeen arteko topaketa bultzatzea. Eta bestetik, herri ezberdine-

tako nerabeen artean harremanak eta elkarlana bultzatzea eta sustatzea.

Neska-mutilez osatutako taldeak ziren, 10 lagunez osatuak. Lagun giroa izan zen nagusi Idiazabalen, nahiz eta herrikoek ez ziren oso gusturara gelditu.

Saria, 'zigorra'

Sari berezia zen jokoan. "Gure kasuan, 'Zigorra' izan da saria. Azkena egiten duen taldeak bere gaztelekuan zerbait antolatzeko (merienda,

antzerkia, pelikula emanaldia,...) konpromisoa hartu beharko du. Ez dugu zerbait negatiboa bezala ikusi nahi baizik eta aukera bat bezala", dio Ainara Urteagak, Itsasondoko Gaztelekuko hezitzaileak. Izan ere, "helburua ez da partidua irabaztea, baitzik eta ekimen bat aurrera ateratzea eta ondoren, zigorraz baliatuz, beraiek ekimenak sortu eta aurrera eramatea", gaineratu du.

Zegamak eta Idiazabalek jokatu zuten finala. Tentsio handiko partidua izan omen zen. Azkenean, zegamarrek irabazi zuten. "Galtzailea" Itsasondo izan zen. Beraz,

Itsasondoko Gaztelekukoek txanda da hurrengo ekintza antolatzea.

Hezitzaileak gustura gelditu dira areto futboleko ekintza honekin eta Gaztelekuen arteko topaketekin jarraitzeko asmoa daukate: "Oso balorazio positiboa egiten dugu. Bada denbora bat, goierriko gaztelekuen artean ekintzak antolatzen hasi ginenetik eta horrekin jarraitu nahiko genuke. Ekintza honek bide emango digu etorkizunean berriro beste topaketa bat egiteko eta goierriko nerabeak elkarrekin ekintzak egiteko", dio Urteagak.

"Nerabeen arteko topaketa bultzatzea, eta nerabeen artean harremanak eta elkarlana bultzatzea eta sustatzea dira helburuak".



Berritua
Bakarra
Bateratua

Badator

San Blas jaiak Idiazabalen

Urtarrilak 27, ostirala:
Kontzertuak pilotalekuan:
23:00etan: Starblues Gea.
00:30ean: Zea Mays.

Urtarrilak 28, larunbata:
15:00etan: Herri mailako plater-tiroketa Olaberriko tiro eremuan.
17:00etan: Euskal Herriko sokatira txapelketa, 8x8 600kg, pilotalekuan.
20:00etan: Txistulari Alardea Zelaako Kiroldegian.

Urtarrilak 29, igandea:
Idiazabalgo XXXII.
Herri Krosa:
10:45ean: Benjaminak, alebinak eta infantilak.
12:00etan: Kadete eta helduak.
17:00etan: Umeen danborrada.
18:00etan: Bertso saioa pilotalekuan.




*Eskolako gaiak
Goxokiak
Prentsa*
Jai zoriontsuak!
☎ 943 18 72 19 IDIAZABAL



kale nagusia, 18
20213 IDIAZABAL
Tel. 943 18 78 46

**IONEKA
EDERGINTZA**



- Depilazioak
- Laserra
- Aurpegiko eta gorputzeko tratamenduak:
- * Kabitazioa
- * Presoterapia
- Manikura:
- * Gelezko azkazalak
- Solariuma
- Spray autobrontzeadorea
- Mikropigmentazioa
- Produktu salmenta

Bikuña Kalea, 1 IDIAZABAL
Tel.: 943 188 193



izal ☎ 943 187 049
☎ 943 187 045
Ondramuño
baserria
IDIAZABAL
IMAZ eta CONTRERAS
PINTURA eta PAPERGINTZA



KLIC estankoa
FAX PUBLIKOA • FOTOKOPIAK • OPARIK • BITXIAK
Tel. \ Fax **943 18 73 73**
Nagusia 20, IDIAZABAL



**MEKANIKA ETA
IBILGAILU
KONPONKETA**
Guardiko Industrialdea ☎ 943 18 74 83 IDIAZABAL



IDIAZABALGO SAN BLAS JAIK 2012



ALDANONDO GARAJEA

MICHELIN zerbitzu ofiziala

Gurpil lanak,
alineazioa,
aluminiozko lllantak

Filtroak, olioak,
engrasea

Frenu pastilak, tubo
eskapeak, bateriak

Harezko txorrotadak



Errota Poligonoa IDIAZABALgo barreran ☎ 943 18 72 57

ARANTZAZU ARRAINDEGIA

*Jai
zoriontsuak
denoi!*



☎ 943 18 70 68
☎ 943 18 76 99
K. Nagusia, 20
IDIAZABAL

☎ 943 88 14 13
Juan XXIII., 12
BEASAIN





943 187 458
Faxa: 943 187 134
IDIAZABAL



**Era naturalean
elikatutako
oiloen arrautza
jarriberriak**



Jai zoriontsuak guztioi!

J. ARANBURU
IDIAZABAL
☎ 943 187 492



Otsailak 1, astezkena:

16:15ean: Ordiziako abes-
batzaren kantaldia, Egunekeo
zentroan.

18:00etan: Ordiziako abes-
batzaren kantaldia, Jubilatu
elkartean. Ondoren bokadu-
txoa izango da.

19:00etan: 'Arkaitz eta
Axari 40 urte dantzari'.
Mahai ingurua Udaletxeko
Areto Nagusian.

20:30ean: 'Idiazabal dan-
tzan' erakusketaren irikialdia.

Otsailak 2, osteguna:

Kandelari eguna:

17:00etan: Txokolatea
haurrentzat eta buruhandiak.

17:30ean: Musika eskolako
haurren kontzertua plazan.

18:30ean: Txupinazoa,
pregoia eta Axariaren jaitsie-
ra. Ondoren: ohiko kanpai
bueletakoa.

19:00etan: Meza eta kan-
dela bedekazioa.

19:00etan: Herriko futbito
txapelketako finalak, IGAK
antolatuta.

Otsailak 3, ostirala: San Blas eta moztorro eguna:

10:00etan: Txistularien
kalejira.

11:00etan: Meza Nagusia,
Parrokiako Koruak abestuta,
eta ohiko erroskila bedekazioa.

Ondoren: Hamaiketakoa,
Guraso elkartean.

12:00etan: Herriko txirrin-
dulari proba. (11:00etan gaz-
teena izango da).

14:00etan: Herri bazkaria.

Ondoren: Haurrentzat
marrazki lehiaketa.

17:00etan: Haurrentzako
jolasak, IGA-k antolatuta.

18:00etan: Profesionalen
arteko eskuzko pilota parti-
dak Igarondo pilotalekuan.

18:00etan: Mozorrotuen
arteko jolasak, trikipoteoa
eta gurdi lasterketa, IGA-k
antolatuta.

21:00etan: Danborrada
afaria.

23:30ean: Helduen danbo-
rrada. **Ondoren:** Musika.

SAN BLAS JAIK IDIAZABALEN

Otsailak 4, larunbata:
San Blas txiki, ume eta
koadrilen eguna:

10:00etatik 13:00etara:
Eskola kiroleko Goierri maila-
ko benjaminen herri kirol
saioa, Zelaako kiroldegian.

10:00etatik 11:30era:
Gipuzkoako bola txapelketa.

11:00etik 13:00etara:
Puzgarriak pilotalekuan.

11:30ean: Ohiko hamaike-
takoa herriko plazan bertako
produktuak erabiliz. Trikiti-
lariek alaituko dute goiza.

12:00ean: Amets Arzallus
eta Iker Zubeldia bertsolariak
herriko plazan.

15:00etatik 19:00etara:
Puzgarriak pilotalekuan.

15:30ean: XI.Goitibehera
txapelketa, I.G.A.k antolatu-
rik.

23:00etan: Kupela taldea-
ren kontzertua.



Otsailak 5, igandea:

12:00etan: Herriko dantza-
rien erakustaldia, Igarondo
pilotalekuan.

17:00etan: Herri kirol
saioa, Igarondo pilotalekuan.

19:00etan: Taloak jan eta
sagardoa edateko aukera
herriko plazan.

18:30ean: Axariaren igoe-
ra.

MUJIKA frutak barazkiak



☎ 943 18 72 20
Plaza Nagusia, 6
IDIAZABAL

☎ 943 08 71 28
Victor Mendizabal kalea, 6
ORDIZIA

Beasain-Ordizia

Antzerki Garaia, Beasainen eta Ordizian

Beasaingo eta Ordiziako udalek antolatuta, urtariletik apirilera, Antzerki Garaia izango da. Bi herrietan, launa antzeslan ikusteko aukera izango da. Denboraldi osorako abonua eros daitezke 60 euroren truke, Ordiziako Herri Antzokiko leihatilan eta Barrena jauregian, eta Beasaingo Herri Antzokiko leihatilan eta Udaleko Kultura sailean.

Urtarrilak 13, ostirala:

19:30ean eta 22:30ean:

Txalo Produktzioak taldearen, 'Crimen perfecto', Beasaingo Usurbe Antzokian. Sarrera: 12 euro.

Urtarrilak 20, ostirala:

22:15ean: Txintxeta Ekoizpenak taldearen 'Bodologuak', Ordiziako Herri Antzokian. Sarrera: 10 euro.

Otsailak 3, ostirala:

22:15ean: Ados Teatroa taldearen, 'Wilt. Panpina puzgariaren hilketak', Beasaingo Usurbe Antzokian. Sarrera: 10 euro.

Otsailak 10, ostirala:

22:15ean: Txalo Produktzioak taldearen 'Hil arte bizi', Ordiziako Herri Antzokian. Sarrera: 10 euro.

Martxoak 2, ostirala:

22:15ean: Tanttaka taldearen, 'Ipar haizearen kontra', Beasaingo Usurbe Antzokian. Sarrera: 10 euro.

Martxoak 23, ostirala:

22:15ean: Banarte antzerki taldearen 'La abuelita de Batman', Ordiziako Herri Antzokian. Sarrera: 10 euro.

Martxoak 30, ostirala:

22:15ean: Glu Glu producciones taldearen, 'Ipar haizearen kontra', Beasaingo Usurbe Antzokian. Sarrera: 10 euro.

Apirilak 20, ostirala:

22:15ean: Zanguango teatro taldearen, 'Aqui va a pasar algo', Ordiziako Herri Antzokian. Sarrera: 10 euro.

Ordizia

Urtarrileko ekintzak

Urtarrilak 17, asteartea:

19:00etan: Barrena Kultur Etxean, Ortzadar Argazki Elkarteak antolatuta, 'kanpo sakontasuna' tailerra.

Urtarrilak 24, asteartea:

17:30ean: Udal Liburutegian ipuin kontaketa Mertxe Aizpuruarekin.

19:00etan: Barrena Kultur Etxean Ortzadar Argazki Elkarteak antolatuta, 'Errebelatu digitala: aukeraketak' tailerra.

Urtarrilak 26, osteguna:

19:00etan: Barrena Kultur Etxean irakurketa tailerra Irati Goikoetxearekin. Informazioa: Udal liburutegian (943805635 liburutegia@ordizia.org).

Urtarrilak 31, asteartea:

19:00etan: Barrena Kultur Etxean Ortzadar Argazki Elkarteak antolatuta, 'Egile-argazkia' tailerra.

Ezkio-Itsaso

Familientzako tailer didaktikoak Igartubeiti baserrian

Urtarrilak 14, larunbata:

17:00etatik 18:30era: Animaliak (txoriak) zaintzen. Dohainik.

Urtarrilak 21, larunbata:

17:00etatik 18:30era: Txorien jantokia. Dohainik.

Urtarrilak 28, larunbata:

17:00etatik 18:30era: Patata imaginazioan tailerra. 3 euro.



Egurrezko leihoak, kontraleihoak, atak eta eskailerak neurria.



JANTZI ZURE ETXEA EGURREZ

Tfnoa.: 943 67 36 11 Faxa: 943 67 36 55
Cuatrovientos Industrialdea, 1
Txarama Auzoa 20491 LEABURU

- ✕ Jabekideen komunitatea osatzea
- ✕ Komunitateen kontabilitatea
- ✕ Akten idazketa
- ✕ Aurrekontuen eskaera
- ✕ Aholkularitza legala
- ✕ e.a.



Komunitateen administrazioa
Kol. Zenb. 599

Urdaneta 52-behea
ORDIZIA
Tel.: 943 087 486

Beasain

San Sebastian festak Garinen

Urtarrilak 21, larunbata:**13:00etan:** Kanpai bueltak eta altxafuegoak.**14:00etan:** Herri bazkaria, Muñogain auzo elkartean.**Ondoren:** Mus txapelketa.**18:00etan:** Haur jolasak, auzoko pilotalekuan: aulki-jokoa, koskol biltzea, zaku karrera, eta abar.**Jarraian:** Sari banaketa eta txokolate jana.**Arratsalde-iluntzean:** Josu eta Aiora trikitilariak.**Urtarrilak 22, igandea:****10:30ean:** Goiz eresia Beasaingo Udal Txistulariekin.**11:00etan:** Meza Nagusia Beasaingo San Martingo abesbatza bertan dela.**Ondoren:** Kanpai soinuak izango dira Areantzako Kanpaijole Eskolaren eskutik.**12:30ean:** Igeldoko Olasagasti eta Urretxuko Ipiñarrietako idi pareen indar erakustaldia.**Eguerdia:** Eugenio Lazkano esku-langileak makilak eta bastoiak egingo ditu jendaurrean.**Eguerdian zehar:** Josu eta Aiora trikitilariak jarriko dute festa giroa.

Beasain

Urtarrileko ekintzak

Urtarrilaren 15era arte:

'Jazpana! Fest 2011. Argazki Rallya eta gehiago....' erakusketa, Usurbe Antzokiko Erakusketa Aretoan.

Urtarrilak 28, larunbata:**22:15ean:** Antzerki amateur: 'Cianuro solo o con leche', Usurbe Antzokian.Ludoteka ibiltaria
Igartza auzoan

Urtarrilaren 14an, 16:30etik 19:00etara, ludoketa ibiltaria izango da Igartza auzoan, Asihezi aisialdi elkarteak eta Udalak antolatuta. Ludotekako txoko ezberdinak egoteaz gain, (psikomotritzitatekoa, eskulanetakoa, mahai jolasak, komikiak, eraikuntza txokoak) eta Aisi Hezi elkartearen bera-
ren jolas erraldoiak ere egongo dira.

Zaldibia

Almitza sega elkartearen aldeko
pelota eta aizkora jaialdia

Urtarrilaren 14an izango da Almitza sega elkarteak antolatutako kirol jaialdia. Ohi bezala, Resti pilotalekuan izango da, arratsaldeko 7etan hasita. Pilota eta aizkora norgehiagokak izango dira. Batetik, pilotan, Mikel Goñi eta Aratz Mendizabalek lau koadro t'erdiren barruan jokatu dute buruz buru. Bestetik, aizkora, Iñaki Azurmendi eta Floren Nazabal arituko dira, kanako enbor bana ebakiz.

Jaialdiak ere izango du beste protagonista bat: segalari-tzari buruzko dokumentala.

Goieniz zine klubaren ziklo berria

Urtarrilaren 12tik martxoaren 29ra bitartean izango da Beasaingo Usurbe antzokian Goieniz zine klubaren XXXV. zikloa. Zortzi filma ikusteko aukera izango da ostegunetan, tartean, ikusleek aukeratutako Film Kuttuna. Ohi bezala, abonua ere salgai daude 20 eurotan. Jarraian duzue egitaraua:

Urtarrilak 12, osteguna:**21:00etan:** Klaus Haro zuzendariaren 'Cartas al padre Jacob'.**Urtarrilak 19, osteguna:****21:00etan:** Josh Radnor zuzendariaren 'Happythankyoumoreplease'.**Otsailak 2, osteguna:****21:00etan:** Fernando Trueba, Javier Mariscal eta Tono Errondoren 'Chico&Rita'.**Otsailak 23, osteguna:****21:00etan:** Asghar Farhadi zuzendariaren 'Neder y Simin, una separación'.**Martxoak 8, osteguna:****21:00etan:** Srjan Koljevicen 'La mujer de la nariz rota'.**Martxoak 22, osteguna:****21:00etan:** Film kuttuna: Charles Fergunsonen 'Inside job'.**Martxoak 29, osteguna:****21:00etan:** Carlos Cesar Arbelaezen 'Los colores de la montaña'.

ikaskide
irakaskuntza eta pedagogia

ESKOLA LAGUNTZA:
Lehen Hezkuntza, DBH, Batxilergoa


HIZKUNTZA ESKOLA: INGELERA

UNIBERTSITATE MAILA (MU)

TAILERRAK:
arreta, ulermena, ikasketa teknikak...

MEKANOGRAFIA

Joan Iturralde, 5 eta Urbalde 7
Beasain
943 160 120 - 685 722 403
ikaskide@ikaskide.net



MUJIKA
LIBURUDENDA

Tel. / faxa: 943 88 11 94
Kale Nagusia, 19 ORDIZIA



Segurako Hermanotako eskolako mutikoak 1930 inguruan

over Urraki
Bidaietan adituak

LAISTER WEB ORRI BERRIA:
www.urrakibidaia.com

Kale Nagusia 42, behea **BEASAIN**
Tel.: 943 80 40 15 Faxe: 943 80 55 79
urraki@over.es www.over.es

ptk
ordizia

Pintxo hotz eta beroak
Ogitarteak

Legazpi kalea, 3 ORDIZIA T 943 16 03 04

ZAHARRA • BERRI
IGELTSERITZA ETA ERAIKYNTZA

A. Almeida
620 32 62 92
943 18 03 72
aiakoerrota@terra.es
ATAUN



Eraikuntzak
Gremioen koordinaketa
Erreforma orokorrak
Teilatuak



Iñauti Hartz Klinika
ESTIBALIZ JUAREZ ALDANONDO 602 Zaki. KOLEGIATUA

HAURREN ETA HELDUEN ODONTOLOGIA OROKORRA
RADIOGRAFIA PANORAMIKOA ETA ZEFALOMETRIKOA
ODONTOLOGIA ESTETIKOA (ZURIKETA)
KIRURGIA
ORTODONTZIA - PERIODONTZIA

JOAN ITURRALDE, 3 BEASAIN
☎ 943 88 46 28



Olatz Insausti Garmendia
21 urte, Lazkao
Ingenieritza Mekanikoko
Graduaren azken urteko
ikaslea. Gradu amaierako
proiektua egiten ari da



902 110 436

www.mondragon.edu/prest

"Mondragon Unibersitateak taldean lan egitea erakutsi dit"

Zergatik aukeratu zenuen MONDRAGON UNIBERTSITATEA?

Batxilergoa amaitzen ari nintze-la, ez nengoen oso ziur zer ikasi nahi nuen. Gustuko nituen gaiak zein ziren eta etorkizun batean zer lan mota egin nahi nuen ikusirik, azkenean ingenieritza ikastea erabaki nuen. Garai hartan ez nuen kanpora ikastera joateko batere gogorik eta informazio ugari jaso ondoren Mondragon Unibertsitatara

joatea erabaki nuen. Etiketrik gertu zegoen eta honek abantaila ugari zituen, egunero itzuli bainezakeen etxera. Honez gain, Bolonia planean sartzen zen lehen Unibertsitatea zen eta arlo teknikoan nahiko pres-tatua zegoen.

Bere ezaugarrietatik, zeintzuk dira gehien baloratzen dituzunak ikasle bezala?

Egia esan, hasi nintzenean beste modu batekoa izango zela uste nuen. Hala ere, Mondragon Unibertsitatean

ikasle asko ez garenez, denok ezagutzen dugu elkar eta honek asko laguntzen du. Arrasatetik etortzen diren irakasleekin harremanetan jartzea aldiz, zertxobait zailagoa da baina konpontzen gara.

Orain proiektua egiten ari zara: kontaguzuz zer proiektu den; zer enpresa/enpresekin ari zara harremanetan proiektua aurrera eramateko?

Bai, momentu honetan Indar enpresan nago Gradu amaierako proiektua egiten. Proiektua, hidrogenadoreentzako tamaina ezeberdinetako apoioak diseinatzean eta beharrezkoak diren kalkuluak egitean datza. Oraingoz oso gustura nago eta egiten ari naizen proiektuarekin asko ikasten ari naiz.

Etorkizunari begira, nola ikusten duzu zure burua ikasketak bukatu eta gero: graduondoko bat ikasten jarrituko duzu, edo lanean hasteko asmoa duzu?, nola dago lan-merkatua?

Lanean hastea gustatuko litzaidake baina gaur egun dagoen egoera ikusita badakit ez dela batere erraza izango. Nahiz eta hau buruan izan, ez dut alde batera uzten graduondoko bat ikasten jarraitzeko aukera ere.

Barandiaran

■ berrikuntzak | ■ materialak



943 88 79 72 senpere 7 beasain | 943 18 78 52 eziolatz B-1 idiazabal


www.barandiaranzeramikak.com

betaurreko
graduatuak

mō

mō
kristalak barne

47€



Eskaintza hau baliagarria izango da 2012/05/31era arte. Kontsulta itzazu optikan, langurik gabe. Erantzukizuna: Multiópticas. Erango da pilatu beste promozio batzuekin.

AZKENEAN **MULTIÓPTICAS** BEASAINEN!



Nafarroa Etor. 9-11
Tel.: 943 80 58 84
BEASAIN

J.M. Barandiaran Enp.
Tel.: 943 88 99 88
ORDIZIA

MULTIÓPTICAS
lehena zerbitzu optikoetan